



1. ERANSKINA: Arazo egoera

Lagun artean zaudete herriko parkean harrapaketan. Halako batean, zuetako bat zuhaitz bati begira geldi-geldi geratu da.

Mantis bat ikusi du zuhaitzeko adarretan lasai-lasai eta besteoi etortzeko deia egin dizue:

-Etorri, etorri, inoiz ikusi dudan kakalardo arraroena dago hemen!!

Jolasteari utzi diozue eta guztiok zuhaitzera gerturatu zarete.

-Hori ez da kakalardoa, matxinsalto bat baizik! - Esan du lagun batek.

-Bere begiek euli baten begiak dirudite- Gehitu du beste batek.

-Ai, niri armiarmek nazka ematen didate!- Oihukatu du alboan duzun lagunak.

-Hau ez da armiarma, intsektua da- zehaztu du lagun nagusienak.

-Eta armiarmak zer dira ba? Intsektu iletsu nazkagarriak!- Oihukatu du berriz zure alboko adiskideak.

-Ez, armiarmak ez dira intsektuak!

-Bai, intsektuak dira!


-Ez, ez dira!

Eta bat-batean, mantisa begiratzeari utzi eta zuen arteko eztabaidan sartu zarete, armiarmak intsektu ote diren edo ez zehazteko.






2. ERANSKINA: Mantisa



Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.




2. ERANSKINA: Kakalardoa (*Oedemera nobilis*)



Irudiak Wikimedia commonsetik hartu ditugu.




2. ERANSKINA: Eulia (*Sphaerophoria scripta*)



Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.





2. ERANSKINA: Tximeleta (*Iphiclides feisthamelii*)



Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.



2. ERANSKINA: Erlastarra (*Bombus terrestris*)



Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.



3. ERANSKINA: Behatu, marraztu eta erantzun.

Tokatu zaizun intsektua marrazterako orduan, saia zaitetz hemen ageri diren galderak erantzuten zure marrazkiaren bidez.

- Nola mugitzen da aurrean duzun intsektua?
- Zenbat hanka ditu?
- Zein zentzumen dituela esango zenuke? Identifika dezakezu zentzumen organo bakoitza?
- Intsektua laztanduko bazenu, nolakoa izango litzateke bere azala? Leuna, likatsua, iletsua, zurruna, latza...?
- Zure ustez, nola elikatzen dira?
- Ze tamainatakoa da? Saiatu errealitateko zerbaitekin konparatzen: borragoma batekin edo txanpon batekin, adibidez.
- Zenbat gorputz-atal identifikatu ditzakezu?
- Emea edo arra den identifikatzerik duzu?
- Koloreari dagokionez, zein koloretako margo edo arkatza erabiliko zenuke hura margotzeko?



4. ERANSKINA: Ondorioak taldeka

Zenbat gorputz-atal dituzte? Zein dira?

Zenbat hanka dituzte?

Zenbat hego dituzte?


Ba ahal dute antenarik? Zenbat?



5. ERANSKINA: Sortu intsektu bat

Jarraian ageri diren atalak baliatuz eta urrats hauei jarraituz, intsektu berri bat sortu beharko duzu.


1. Aukeratu gorputz bat zure intsektuarentzat eta marraztu zure koadernoan arkatza erabiliz.





5. ERANSKINA: Sortu intsektu bat

2. Aukeratu intsektuak izango dituen hegoak eta gehitu lehen marraztu duzun gorputzari. Gogoratu, intsektuaren hegoak bularraldetik ateratzen dira.




Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.

<https://commons.wikimedia.org/w/index.php?search=insect+wing&title=Special:MediaSearch&go=Go&type=image>



5. ERANSKINA: Sortu intsektu bat

3. Aukeratu intsektuak izango dituen hankak eta gehitu zure irudiari. Gogoratu intsektu izateko izan beharreko hanka kopurua.



Irudiak *Wikimedia commonsetik* hartu ditugu.

4. Gehitu intsektuaren gainerako ezaugarriak: begiak, antenak, eta abar. Gehitu behar dituen xehetasun guztiak.



6. ERANSKINA: Marrazki kolektiboa

Hona hemen taldekideen artean ikertzera zoazten irudi kolektiboa osatzeko jarraibideak. Kontuan izan lan kolektiboa denez guztiok parte hartu behar duzuela. Hori bermatzeko, hona hemen hainbat jarraibide:

Taldekide bakoitzak jarraian aipatutako puntu bakarra soilik marraztu beharko du, eta ondoren hurrengo taldekidearen txanda izango da.

1. Marraztu aukeratutako intsektuaren gorputzaren forma orokorra (burua, toraxa eta sabelaldea).

2. Gehitu intsektuari dagozkion atalak (ikaskide bakoitzak bat):

- Antenak
- Hegoak
- Hankak
- Begiak
- Gainerako xehetasunak

3. Nahi izanez gero, margotu intsektua. Kasu honetan, taldekide bakoitzak kolore bat soilik erabili ahal izango du.

Behin intsektua marraztuta, identifikatu huraosatzen duten atalak paperean idatziz.



6. ERANSKINA: Orokortzea

Hurrengo argazkietatik zein ez dira intsektuak? Borobildu intsektu ez diren animaliak.

